

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko urtarrilaren 4a. VIII. urtea. 2.151. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)



Alegian lehen aldiz egin zuten Urtezaharreko krosa. PATXI RENOBALES

## Parte-hartze handia Urtezaharreko krosetan

Alegia, Alkiza, Berastegi, Lizartza, Villabona-Zizurkil eta Tolosan izan ziren eta guztietan sortu zen giroa nabarmendu dute antolatzaileek 4-5

## Bihar irekiko dute Herri Ostatua maizter berriek

Aimar Martinez eta Tamara Larrea gazteek sukaldaritza tradizionala mantenduko dute «baina pixka bat berrituz» 2



Aimar Martinez eta Tamara Larrea Herri Ostatuan. I. GARCIA

## Barriola-Xalak 22-6 irabazi diote Olaizola I.a-Belokiri Binakakoan

VIII. Berria Txapelketa ere segituan hasiko da; Aurrera Saiaz, Zazpi Iturri, Intxurre eta Aurrera Leitza taldeak ariko dira lehian 6

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bita!

**SABERRI**

LURRINDEGIA  
KOSMETIKA  
OPARIAK

arreta  
personalizatua

Bidaiatzeko  
bi maleta  
zozketatzen  
ditugu

Kale Nagusia, 17  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 11 28  
[www.saberri.com](http://www.saberri.com)

**matilda**

gukon haiztari, bizi dituzun zuzen opari onenakiri  
zuri matilda ospekin dindok buruz

## Emakume bat zigortu dute bere haurrari tratu txarra emateagatik

64 egunez gizartearen onurarako lanak egitera zigortu dute; haurrak 11 urte zituen erasotua izan zenean

**Erredakzioa** Villabona

Emakume bat 64 egunez gizartearen mesederako lanak egitera zigortu dute bere 11 urteko haurrari bi alditan tratu txarrak emateagatik. Epaiak zehazten duenez, emakumeak haurra jo zuen alkohol-dun edariaren eraginpean zegoela.

Villabonako familiaren etxebizitzan jazo zen gertaera, epaiaren arabera. Bertan bizi ziren zigortua izan den emakumea erasotua izan den haurrarekin eta bi urteko beste haur batekin.

Lehenengo eraso orain ia bi urte gertatu zen, 2009ko urtarrilaren 6ko goizaldean. Emakume zigortuak «haur zaharrena esnatu zuen eta belarrondokoak ematen hasi zen».

Tratu txarren bigarren gertaera otsailaren 19an izan zen, 22:00ak aldera. Emakumeak hau-

rra lepotik «indarrarekin eutsi» zion, «belarrondoko batzuk eman zizkion» eta haurra ihes egiten saiatu zenean «besoetatik indarrez eutsi zion».

Eraso horren ondorioz, haurrak zenbait ekimosi edo ubeldura izan zituen eta zazpi egun behar izan zituen horiek osatzeko. Egun guzti horietan eguneroko bizitza egiteko arazorik ez zuen izan lesio horientzatik.

Epaiak azaltzen duenez, erasoak gertatu zirenean, emakumea «alkohol-dun edariaren eraginpean zegoen».

### Urte betez haurrarekin harremanik ez

Epai-tegiak bi ez ohiko etxeko indarkeria delituren errudun jo du emakumea, intoxikazio etilikoaren aringarriarekin, eta horregatik 64 egunez gizartearen mesederako lanak egitera zigortu du eta urtebetez bere haurrarekin harremanetan ezingo da jarri eta berarengana ere ezingo da gerturatu.

Horrez gain, epaiak gaineratzen du emakume zigortuak 300 euroko kalte-ordaina eman behar diola ere bere semeari.

## Herri Ostatua zabalduko dute bihar arduradun berriek



Tamara Larrea eta Aimar Martinez Herri Ostatuan. I. GARCIA

Aimar Martinez eta Tamara Larrea jatetxe-tabernaren kudeatzaile berriak prestaketak burutzen ari dira

**Imanol Garcia** Albiztur

Egun hauetan prestaketak burutu ondoren, bihar goizean Albizturko Herri Ostatu kudeatzaile berriek atek irekiko dituzte. Aimar Martinez eta Tamara Larrea dira ostatu arduratuko direnak. 11:00etatik aurrera zenbait pintxo banatuko dituzte herritarren artean eta 13:00etatik aurrera menua ematen hasiko dira.

Herri Ostatuaren kudeaketa lehiaketara atera zuen Albizturko Udalak eta Aimar Martinezi ematea erabaki zuen. Tamara Larrea bere bazkidearekin eraman-go du kudeaketa. Hilaren 1ean jaso zituzten ostatuaren giltzak eta egun hauetan aritu dira burubelarri bihar martxan jartzeko.

Ostalaritzan eskarmentua du Aimar Martinezek bai sukaldari eta bai zerbitzari bezala. Bestalde, zenbait negozio berri martxan jartzen lagundu du. Sukaldari bat kontratatuko dute eta asteburuetan Martinez ere ariko da sukaldean.

Ostatuaren arduraren hartzearen nahia bere negozioa izatea izan da. «Beti egon naiz beste batzuei negozioak irekitzen laguntzen edo besteentzako sukaldean aritu naiz eta nire kontura zerbait hartzeko gogoan nuen. Albizturko jatetxea ikusi nuenean gustatu zitzaidan eta gainera ikusi nuen babarrunarekin mugimendua dagoela eta bezeroen zati bat ziurtatuta dagoela».



Herri Ostatu udaletxearen azpiko solairuan dago. I. GARCIA

Bestalde, berritzea ere gustatzen zaio Martinezi. «Betiko sukalde tradizionala mantendu nahi dugu, baina pixka bat ere berrituz. Adibidez, postreetan edo zenbait plateretan berritasunak izango dira», azaltzen du. Aste barruan eguneko menua izango dute. Gero herritarrekin hitz egiteko asmoa dute: «Zenbait herritako ostaluetan herritarrek josten dira kartetan jolastera eta gero afaltzera gelditu ohi dira». Asteburuan karta izango dute eta babarrunak. Karta horren baitan, merkatuan dagoen eskaintzaren arabera plater bereziren bat sartuko dute noizbehinka. Gero, gauetan, kartetatik aparte plater konbinatuak emateko asmoa dute. «Helburua jendeak pikkanaka guri ezagutzea da», dio.

### Oinarritzko produktuen denda

Herri Ostatuaren lehiaketarako oinarrietan zehazten zenez, zenbait produktu salgai jarri behar dituzte. «Etxerako behar diren oinarritzko produktuak izango dira: olio, gatz... Gero egun ho-

rretan menua egiteko erabili ditugun produktuak ere jarri ditzakegu saltzeko. Haurrentzako gozokiak ere jartzeko asmoa dugu», dio Martinezek.

Dendara erosleak joango diren galdetuta, «mugimendua sortzen du gogoarekin egiten den edozer», erantzuten du Martinezek. «Jatetxean zenbait ideia berri sartzen saiatuko gara. Gero ahohokoak asko funtzionatzen du horrelakoetan. Dendan ere berdin. Zerbitzu on bat ematen badugu, produktuak asko garestitu gabe, uste dut lortu daitekeela autotua hartu beharrean Tolosara joateko, nahiz eta 20 edo 30 zentimo gehiago ordaindu behar, guregana etortzea».

Martinezek Albiztur eta bere ingurunea nabarmentzen du: «Oso leku aproposa iruditzen zait bazkaltzera edo afaltzera etortzeko. Aparkalekua dago. Leku oso lasaia da. Jatetxea ere berez oso leku goxoa da. Haurrekin etortzeko ere ondo dago, kanpora ateratzeko aukera dagoelako. Mendi ibilbideak ere gertu daude».

## → Laburrak

### Txistulari bandaren eta musika bandaren saioa

**TOLOSA** › Tolosako Musika Bandak urteroko Errege Eguneko kontzertua emango du etzi, 12:30ean. Musika eskolaren areto nagusian izango da emaldia. Lehenengo zatian Tolosako Txistulari Bandak emango dio hasiera kontzertuari eta ondoren musika bandak Strauss-en vals eta polkak eskainiko ditu. Eguberrietan musika bandak ematen duen hirugarren emaldia izango da etzikoa.

### Tolosaldea Sahararekin elkartearen hitzaldia

**TOLOSA** › Angel Cuerdoren azken hamar urteetako bidaien argazkiak ikusgai daude Aranburu jauregian, *Mundu bat kolore* izenburupean. Argazki hauek, gainera, erosteko aukera ere badago, 50 euroan, eta bil-dutako dirua sahararrei laguntzeko baliatuko da. Bada, erakusketaren barruan, Tolosaldea Sahararekin elkarteak hitzaldia emango du gaur, 19:00etan, Aranburu jauregian bertan. Mendebaldeko Saharan edota errefuxiatuen kanpalekuetan dituzten proiektuen berri emango dute. Bertan izango da, baita ere, Tolosa anaituta dagoen Bir-Lehlu herriko alkatea.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Futboleant jolastuz ekin diote urte berriari herriko gazteek

Gazte Asanbladak antolatuta, II. Futbito Maratoia jokatu zen atzo egun guztian zehar udal kiroldegian

**Erredakzioa** Leitza

Urtea amaitzeko krosak izan dira nagusi eskualdeko hainbat eta hainbat herritan. Berria hasteko berriz, aukerak ugariak izan dira. Leitzan, futboleant jolastuz egitea erabaki dute. Izan ere, atzo, bertako Gazte Asanbladak antolatuta II. Futbito Maratoia jokatu zuten. Jende ugari hurbildu zen egun guztian zehar udal kiroldegira, lagunak eta herritarrak animatzera.

## Lehia luzea

Zazpi taldek hartu zuten parte eta goizean hasi zuten norgehiagoka. Lehendabizi ligaxka jokatu zuten talde guztien artean, eta azkenerrako gauera arte luzatu zen txapelketa.

Goizean, gogotsu ekiteko, salda eta pintxoak izan ziren parte-hartzaileentzako. Eguerdian berriz, atsedernaldia egin zuten 14:00etatik 15:00etara bitartean, bazkaltzeko. Egunkari honetako erredakzioa ixtean, oraindik amaitzeko zegoen txapelketa.

Partida motxen ligaxka izan zen, neska nahiz mutilekin osatutako taldeen artean jokaturakoa. Bestalde, antolatzaileen aurreikuspenak bete ziren, 7-8 taldek izena emango zutela espero baitzuten.



Bost eta zortzi lagun arteko taldeak aritu ziren lehen. E. EZEIZA



Denera zazpi taldek hartu zuten parte Futbito Maratoian. E. EZEIZA

# Natura esnatzeko zintzarriak astinduko dituzte gaur gauerdian

00:00etan irtengo dira Aurrera elkarteko ataririk eta kale guztietatik barrena ibiliko dira

**Erredakzioa** Leitza

Gaur gauerdiko isiltasuna apurtuko dute kulunka, zintzarri joare eta abarrek. 00:00etan Aurrera elkarteko ataririk abiatuko dira herritarrak eta kale guztietatik barrena zabalduko dute zalaparta. Honekin, natura esnatuko omen dute eta aldi berean, ihote-

ak badatozela iragarri. Honenbestez, soinu ateraz, herriari itzulia emango diote eta hurrengo egunean iritsiko diren Errege Magoei bidea irekiko diete. Hauek, etzi 18:00ak aldera iritsiko dira Leitzara, bertako haurren gutunak jasotzeko.

Ondoren, kalejiran parte hartu duten guztiek txokolate beroa izango dute zain Aurrera elkartean.

## Ihoteetarako prestatzen hasiko dira berehala

Ihoteetarako ia hiru aste falta direnean, hauek prestatzen hasiko dira aste honetan bertan. Aurten-

goan hilaren 22tik 25era bitartean ospatuko dituzte.

Ohiturari jarraituz, Leitzako Atsaurer Lagunak, eta Kultur Taldeak antolatuta, atsaurer prestatzeko tailerrak egingo dituzte aurreko asteburuetan. Larunbat honetan 10:00etan elkartuko dira Aurrera elkartean. Las-tozko kapela, kartoia, koloretako paperak, grapak, kola, guraizeak eta zakuak dira hauek egiteko erabiliko dituzten materialak. Hala, hauek norberak eraman beharko dituelarik. Jarraian, 12:30ean bilera egingo dute aurretengo ihoterietako martxa antolatzeko.

# Saiak ehiza utzi zueneko



## Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

**O**rain bi aste idatzi nuen zutabetxoan sai arrearren elikadura moduaren aldatzeko aritu nintzen, nola gizakiaren kudeaketa ez egokiagatik -asmoa, ona zen arren- sai arre populazioa ausart, goseti eta ehiztari bat sortu genuen. Lerro hauek *Pajaros* filma diruditen arren, ez nuke apokaliptikoa izan nahi eta biologo bezala eta hitz eman nuen bezala, arazo honen irtenbide posible bat planteatu nahi nuke. Ziurrenik milaka pertsona egongo dira irtenbide honen aurka, baina esan dudan bezala dauden aukeretakoa bat da hau.

Alegiako San Juan Herri Ikastetxean banuen natur zientzien irakasle bat, Eduardo Tormo handia, helburuak finkatzearen garrantzia behin eta berriz aipatzen zuela. Tolosako Orixe Institutuan berriz, nigan eragin handia izan zuen Periko Lopez biologo irakasle eta orduan zuzendaria zenak, plangintzaren behararen garrantzia irakatsi zidan.

Zer kasualitate eta biologia lizentziatura eta masterrean irakasle bikain batek, Joxerra Aihartzak, behin eta berriz plangintzaren eta helburuen garrantzia azpimarratzen zuela... kasualitatea ala benetan dira garrantziatsuak helburuak eta plangintza?

Biologo guztiek plangintza bat egin behar dute, zein helburu jarraitzen dituen hasieratik argi azaltzen duena, noiz hasi eta batez ere, noiz amaitu zehatz finkatzen duena. Izan ere, bizidun bat ez da zulgailu bat *on* eta *off* botoiarekin eta askotan, bizidunekin egiten ditugun proiektuak, saiarekin gertatu zen bezala, eskutatik joaten zaizkigu, horregatik helburuen garrantzia: zenbat sai ale nahi/behar ditugu gure

buru gainean hegan? Behin helburua finkatuta dagoela, irtenbidea planteatzen da.

Animalienganako etika mentoz alde batera utzi eta faunaren kudeaketa serio bat planteatuta, egokiena heriotza selektiboa da. Honela, aldi berean populazio honetako gizabanako ausartak desagerraraziko ditugu, populazioa jaitziko dugu eta bide batez, gosetea gutxitu.

Nola egin hau? Saien jateko tokietan janaria ipiniko dugu eta gordeta itxoingodiegua, haragia jatera lehenengo jaitzen dena, ausartena, tiroz botako dugu, baita ondoren etortzen direnak ere eta lotsatienei urrunean hegan egiten utziko diegu. Metodologia krudela dirudien arren, izaera ausartena duten saiak ezabatzea lortzen dugu, sai mesfidatiak bizirik utziz.

Hurrengo belaunaldietan, sai mesfidati hauek txitatxoak izango dituzte (sai ausartak ez dira ugalduko, hilda daudelako noski!) eta txitatxoek gurasoen antza izango dute neurri batean, beraz, gehiengo mesfidatia izango da, gainera, egindako hilketen ostean, sai populazioa ere txikiagoa izango da eta posible da gosetea ere ezabatzea.

Neurri hauek, noski, ez dira egun batetik besterakoak, gutxienez bost sai belaunaldietan egin beharko lirateke. Faunaren kudeaketak pazientzia eskatzen du, hemen ez dago berehalako emaitzik, horregatik plangintzaren garrantzia.

Aipamen bat, bizidunen populazioa kontrolatzeko heriotza edo antzutzeta dira erabilgarriak diren metodo bakarrak, zorritxarez, bizidun bat hiltzea ekonomiki merkeagoa izan ohi da antzutzeta baino, are gehiago, ingurumenaren arloan oso oso oso diru gutxi bideratzen den herrialde honetan.

Gustatu zaizue idatzi berri dudan zutabea? Iradokizunik? Ikastaroak, hitzaldiak... [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) eta informazio gehigarria <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuek deitu 635 75 9 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa. Bi kanoi jo-

kurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Deitu 635 75 9 15era.

### ALOKAIRUA

■ **Pisua.** Berrrobin pisua alokatzen da. Hirugarren solairua, errenformatua. Interesatuek deitu 656 41 02 80ra.

# Ehunka lagunek parte hartu dute San Silvestre lasterketetan

Alegia, Alikiza, Berastegi, Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilgo krosetan parte hartu zuten

Enertiz Maiz Korda

San Silvestre eguneko lasterketak ezagunak izan ohi dira eta gero eta herri gehiago animatzen dira lasterketa hauek antolatze- ra. Oraingoan gainerako herrietan, Alegia, Alikiza, Berastegi, Lizartza, Tolosa eta Villabona-Zizurkilgo krosetan parte hartu zuten.

Alegian lehen aldiz antolatu dute lasterketa eta arrakastatsua izan da. Lasterketa bi taldeetan banatu zuten, 12 urtetik beherako enartean, 89 haurrek parte hartu zuten eta horik gorakoan arteen beriz, 97 herritarri izan ziren. Antolatzailek gustura geratu ziren izan duen erantzunarekin eta beriz ere antolatzeko asmoa agertu dute. Parte-hartzaileen artean, herriko denda, taberna eta zerbitzuak eskaintzako produktuen zozketa egin zuten.


Berastegiko lasterketa urteko urtera gorakada da. 12 urtetik aurrera 84 partaide izan ziren eta gorakoan arteen beriz 81 herritarri. Antolatzaileen esanetan,

«neste baino jende gehiago atara zen eta elastiko gabe geratu ginen». Zapagarren aldiz antolatu du Urpelel elkarteak. Lizartza lasterketa Otsabio elkarteak antolatzen du eta ez dute saririk banatzen. Helburua parte hartzea da. Lehenik gaiztoak eta jarraian helduak egiten dute lasterketa. Amaieran, denentzako izan zen txokolata berez.

Alikizan ere San Silvestre lasterketa egiten dute. Kasu honetan, herriko txikienek parte hartzen dute. Lasterketaren ostean, haur gutxiengatik izan ziren sarrak.

Tolosako Urtezharruko Elkartasun Krosoa, Samaniego Ikastetxea eta Orize Institutuak antolatzen dute. 650 haurrek eta 564 helduak parte hartu zuten kasu honetan. Bertan bildutako dirua, Bibliomula proiektuarentzat izaten da. Kolombiako komunitate batenaz, hain zuzen ere.

Aurten ere eta aurrekoetan bezala Villabona eta Zizurkilgo ikasleak XXVII. Urte Zaharretako lasterketa, Zumbeltz eta Urkamendi elkarteak antolatzen dute Villabona eta Zizurkilgo Udalen laguntzarekin. Lasterketan, 570 herritarrik parte hartu zuten.



Villabona-Zizurkilgo lasterketa arrakastatsua izan zen. 570 lagun atara ziren denera. MTA

## San Silvestre lasterketak

### ALEGIA

- **6-7 urtekoak.** Uxue Balerdi eta Axel Arrikarte izan ziren lehenak.
- **8-9 urtekoak.** Larraitz Balerdi eta Iosu Amikarte.
- **10-11 urtekoak.** Maddi Pagola eta Ander Karrea.
- **12-15 urtekoak.** Amaia Otamendi eta Unai Llamas.
- **16 urtekoak.** Mari Jose Albeniz eta Manu Hurtado.

### BERASTEGI

- **12 urte artekoetan.** Leire La-

- **12 urte artekoetan.** Leire La-rraiga eta Ibon Garaiburu izan ziren lehenak helmugara iristen.
- **12 urte artekoetan.** Elena Zubelzu eta Beñat Salbarredí izan ziren.

### TOLOSA

- **Benjaminak.** Maddi Pagola eta Jon Lillo.
- **Alebinak.** Izaro Perurena eta Unai Iribar.
- **Infantilak.** Nerea Murua eta Luis Mari Garikano.
- **Helduak.** Amaia Arbillaga eta Unai Arroyo izan ziren azkarrenak.

### VILLABONA-ZIZURKIL

- **Benjaminak.** Sara Iriarte eta Ander Usan dizaga.
- **Alebinak.** Garazi Otegi eta Artz Martin.
- **Infantilak.** Ane Galaz eta Iker Lozano.
- **Kadeteak.** Tomas Elorza, (neskarik ez).
- **Jubenak.** Jokin Otaegi, (neskarik ez).
- **Helduak.** Isabel Dumall eta Mikel Rodriguez izan ziren lehenak helmugara iristen.
- **Betezeroak.** Nerea Amilibia eta Patxi Urizar.



Alikiza, Berastegi eta Lizartza lasterketetan inbaditu geratu zirenak edota parte-hartzaileak. MTA



Tolosako lehen lasterkaria helmugara iristen. LAGAZA



Bildutako dirua Kolonbiara bidartuko dute. LAGAZA



**SAN SEBASTIAN TIPUKO BASKET**

**sarrerak**

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta du**

**LAGUN ARO GBC**  
Caja Laboral Baskonia  
saskibaloia partida

Urtarrilak 9 • Igandea  
12:30ean  
Donostiako Iriben

sarrerak eskuratzeko dituz gaitze **943-65 56 95** telefono zenbakera



**SAN SEBASTIAN TIPUKO BASKET**



Egin zure erosketak Mugaren

**MUGAR**

MODA INTIMA

Nafarroa etorri, 16 • Tel.: 943 65 56 95  
Patxo Gorosabel 26 • Tel.: 943 65 40 37  
**TOLOSA**



Opari praktikokoak Mugaren

**BERRIA taldeak zure laguntza behar du**

HITZAK inoiz baino irakurte gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Ironekin eta pagarekin, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. **Apustu hau aurrera ateratea da, zuekin batera, gure erronka.**

*Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!*

**berrieta.info**

**Lagundu gaitzazu ekonomikoki**

**Ekarpene egiteko bideak**  
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

- Transferentzia Euskadiko Kutxan: **3035 0060 48 0600113162** (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: **zuzaraberria.info** webgunean

**berria**  
taldea

## Kirolak &gt;

## ↓ Emaizak

## ESKU PILOTA

## BINAKAKO TXAPELKETA

Lehen maila  
Xala-Barriola 22  
Olaizola I-Beloki 6

Irujo-Merino II. 4  
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz 22

Bigarren maila  
Apezetxea-Zezilio 22  
Olaetxea-Albisu 18

Urrutikoetxea-Iza 11  
Olazabal-L. Galarza 22

Rico-Argote 22  
Jaunarena-Larrinaga 20

## ERREMONTEA

## ORONA TORNEOA

Finalerdiak  
San Miguel 30  
Zeberio II 27

## Finala

San Miguel eta Ezkurren artean jokatu da.

## AIZKORA

## URREZKO AIZKORA

Binaka  
Mujika-Otaegi 25:00"  
Arria V-Rekondo 23:00"

## ZILARREZKO AIZKORA

Binaka  
Alkizaletxe II-Zaldúa 12:29"  
Dorransoro-Mugertza 11:35"

## BELA

## BARCELONA WORLD RACE 2011/01/03

## Sailkapena

1. Dick & Peyron  
2. Desjoyeaux & Gabart  
9. Xabi Fernandez & Iker Martinez

# Urte berriak Binakako Txapelketa eta Berria Txapelketa ekarri ditu

Binakako Txapelketan bigarren jardunaldia asteburu honetan jokatu da; partida bat Tolosan izango da

## Asier Imaz Pilota

Asteburu luze honetan pilota partida ugari jokatu dituzte eskualdeko pilotariak binakako txapelketen lehen jardunaldian. Leitzarrek maila nagusian aritu dira eta gazteak bigarren mailan. Emaizak, ohikoa den bezala, gustu eta kolore guztietakoak izan dira.

## Lehen mailan bi garaipen

Urtea pilotalekuan hasi zuten Abel Barriolak eta Asier Olaizolak. Leitzan bizi diren bi pilotariak elkarren aurka aritu ziren Eibarren. Faboritoak erraz nagusi ziren, 22-6ko emaitzarekin. Barriola-Xalak bikote handia osatzen dutela erakutsi zuten Asteleanean. Olaizola I.a-Beloki ongi hasi baldin baziren ere, seian gelditu ziren.

Oinatz Bengoetxeak hurrengo egunean jokatu zuen txapelketako lehen partida, hau da, herenegun. Leitzarrek Patxi Ruizekin osatzen du bikotea eta sendo agertu ziren Juan Martinez Irujo handiaren eta Merino II.aren aurka. Amaieran, markagailuak ezohiko emaitza erakusten zuten, Irujo gutxitan gelditu baita lauan.

Bigarren jardunaldia asteburu honetan jokatu da. Ostiralean, hilaren 7an, Xala-Barriola Donibane Loitzunen ariko dira Gonzalez-Laskurainen aurka. Lapurdin



VIII. Berria Txapelketaren aurkezpena Andoainean. GARI GARAIALDE

jokatuko den jaialdia 20:00etan hasiko da. Larunbatean, hilaren 8an, Bengoetxea VI-Ruizek Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dute Olaizola II-Beginoren aurka. Hirugarren pilotariak, Asier Olaizolak, Tolosan jokatu du partida. Eguna ordea zehaztu gabe dago oraindik. Enpresek azaldu dutenez, ostiralean edo astelehenean izango da Olaizola I.a-Beloki eta Berasaluze VIII-Apraizen arteko lehia.

## Bigarren mailan, bi porrot

Jon Jaunarenak profesional mailako bigarren partida jokatu zuen herenegun Eibarren. Binakako Txapelketan Larrinagarekin osatzen du bikotea leitzarrek eta 22-20 galdu zuten Rico IV-Argoteren aurka.

Mikel Olaetxeari ere galtzea tokatu zitzaion. Albisurekin 18an gelditu zen lizartzarra, Apezetxea-Zezilioaren aurkako lehia.

Irabaztea lortu zuena Mikel Olazabal izan zen. Aresoarrak Ladi Galartzarekin jokatu zuen eta Urrutikoetxea-Iza hamaikan utzi zituzten.

## VIII. Berria Txapelketa

Krisiaren eragina gaineratik ezin kendurik aurkeztu zuten iragan astean Berria Txapelketaren VIII. edizioa. Martxelo Otamendik, Berriako zuzendariak, horrela onartu zuen: «Guri ere gogor jo digu krisiak, baina hortzak estututa txapelketari jarraipena ematea erabaki dugu. Guretzat ohorea baita pilota moduko kirol batean gure publikitatea agertzea».

Parte-hartzaileen artean eskualdeko lau pilota elkarte aurkitzen dira: Aurrera Saiaz, Zazpi Iturri, Intxurre eta Aurrera Leitzara.

Lehen kanporaketa hilaren 14, 15 eta 16an jokatu da. Intxurre bertan izango da, Lagun Onaken

aurka tokatu baitzaio. Ondoren bigarren kanporaketa etorriko da. Hemen gainontzeko hiru elkarteak sartuko dira. Finala berriaz, martxoaren 25, 26an edo 27an jokatu da.

Iaz Galdakaoko Adiskidek irabazi zuten, finalean Aurrera Saiaz gaitu ostean. Aurten ordea, denek Zazpi Iturri jotzen dute faborito. Amezketarrek talde bikaina osatzea lortu dute, profesional ohi eta guzti.

Lehiaketa sistema azken urteetako berbera izango da. Kadeteen, gazteen eta nagusien mailan jokatu dira lehiak, ordena naturalean. Garaipena bi norgehiagoka irabazten dituenak lortuko du, baina bada berezitasun bat. Izan ere, lehen bi partidak elkarte berberak irabazten baditu, tanton sistema aplikatu litzateke. Neurri honekin azken partidari emozioa eman nahi diotela azaldu dute antolatzaileek.

## ● Hilberria eta urteurrena

 **FLOREN SAGASTI** ★

*Euskal Herria askea zor dizugu, Floren. Egon ziur eginalak eta bi egingo ditugula.*

Tolosako Ezker Abertzalea

Tolosan, 2011ko urtarrilaren 3a

 **MARIJO LOMBIDE ORICAIN**

2010eko urtarrilaren 3an hil zen

*Oroitzapenaren zama ez da zama arina  
Hutsa litzatekeena zu parte ez bazina  
Hau sentsazio baten azaldu ezina  
lagun minen joanak dakar lagun mina*

MAITE ZAITUGU

Joxi, Asier eta Josu

LEGAZPI, 2011ko urtarrilaren 4a

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

**Tolosa** ◦ Areto-futbola**SHANTI TXAPELKETA AZKEN TXANPAN**

Eguberrietako torneoaren 29. edizioa amaitzeko azken partidak falta dira. Tolosako Usabal kiroldegian jokatzen ari den txapelketaren finalerdiak gaur jokatuko dira. Bihar, asteazkena, 3. eta 4.

postuetarako partiden txanda izango da eta une erabakigarria Errege Egunean etorriko da, orduan jokatuko baitira maila guztietako finalak. Onenek irabaz dezatela. A. IMAZ

**Zazpi Iturriko pilotariak Euskadiko liga jokatzen hasiko dira gaur bertan**

Gipuzkoako Txapelketan lau txapela eta ligarako gonbidapenak lortu zituzten pilotariak

**A. Imaz** Amezketak

2010 urtea «txukun» joan zaie Zazpi Iturri pilota eskola osatzen dutenei, horrela onartu dute behintzat: «Sei talde atera genituen Gipuzkoako Txapelketan eta horietatik lauk txapela lortu zuten: Irribarriak eskuz banaka kadeteetan, Altuna-Irribarriak eskuz binaka kadeteetan, Gallurralde eskuz banaka gazteen mailan eta Olaetxea-Arzelusek eskuz binaka afizionatuen lehen mailan». Egindako lan onari esker, Euskadiko liga jolasteko gonbidapenak

lortu dituzte lau maila horietan. «Turroiaz eta cavaz asko goxatu gabe berriz ere lanean hasi beharra etorri zaigu», gaur bertan hasten baita Euskaldiko liga.

Partiden egitaraua honakoa da: Gaur, hilak 4, 20:00etan Amezketako Larrunarri pilotalekuan eskuz banaka kadeteak Iker Irribarria-Amurrioren parte hartzearekin. Eskuz binaka kadeteak Altuna-Otamendirekin, Burlatako Zugarralderen kontra. Azpeitian, 19:00tan, Olaetxea-Arzelus ariko dira bertako pilotarien aurka.

Errege Egunean 11:00etan Astigarragan Erik Jakak Gurutzalderen aurka jokatuko du.

Bestalde, bigarren jardunaldia asteburu honetan jokatuko dela azaldu dute Zazpi Iturri pilota eskolako kideek.

◦ aimaz@hitza.info

**Mujika eta Otaegi txapelketatik at gelditu dira**

Zilarrezko Aizkoran Alkizalete II.ak herrian jokatu arren ez zuen garaipenik lortu; Zaldua izan zuen lagun

**Asier Imaz** Aizkora

Asteasun urteko azken egunean aizkora jaialdia antolatatu zuten. Bertan, urrezko eta zilarrezko mailako aizkolariak izan ziren. Binakako txapelketa hauetan, eskualdeko lau aizkolarari aritu ziren.

**Urrezko Aizkora**

Jexumari Mujika ibartarrak eta Joseba Otaegi zizurkildarrak kale egin zuten Asteasun. Txapelketan jarraitzeko irabazi beharra zuten, baina Xabier Orbegozo eta Jon Rekondo leitzarra gainditzen ez zuten asmatu. Arria V-Rekon-

**↓ Probak eta denborak****ARRIA V.A-REKONDO**

- **Kolpeka, 45 ontzakoa.**  
33 segundu.
- **Zutik, 54 ontzakoa.**  
2:19"      Guztira: 2:52"
- **Erlojuaren aurka, 60 ontzakoa.**  
1:28"      Guztira: 4:30"
- **Zutik etzanda, bi 45 ontzako.**  
2:08"      Guztira: 6:38"
- **Abiadura, bi 60 ontzako.**  
4:28"      Guztira: 11:06"
- **Lan erdira, 6 enbor.**  
11:54"      **Guztira: 23:00"**

**MUJIKA-OTAEGI**

- **Kolpeka, 45 ontzakoa.**  
38 segundu.
- **Zutik, 54 ontzakoa.**  
2:42"      Guztira: 3:20"
- **Erlojuaren aurka, 60 ontzakoa.**  
2:12"      Guztira: 5:32"
- **Zutik etzanda, bi 45 ontzako.**  
2:31"      Guztira: 8:03"
- **Abiadura, bi 60 ontzako.**  
5:13"      Guztira: 13:16"
- **Lan erdira, 6 enbor.**  
11:44"      **Guztira: 25:00"**

do bikotea aldz, final laurdenetan aurkitzen dira.

Leitzarra eta erreizildarra lehia guztian aurretik joan ziren. Amaieran bi minutuko aldea atera zien ibartarrari eta zizurkildarrari.

**Zilarrezko Aizkora**

Lehen mailako aizkolarien alboan, zilarrezko aizkolariak egon ziren Asteasun. Horien artean, herriko semea aurkitzen zen, hau da, Alkizalete II.a. Honek, Zalduekin osatu zuen bikotea, baina



Jon Rekondo final laurdenetan aurkitzen da. NAIARA GARZIA

aurkariak izan ziren nagusi. Dorronsoro-Mugertza III.a bikain aritu ziren eta garaipena lortu zuten.

Aizkolariak hiru probatan neurtu zituzten indarrak. Haue-tatik bitan irabazleak gailendu zi-

ren. Azken denborari dagokionez, Dorronsoro-Mugertza III.ak 11:35 segundotan amaitu zituzten lan guztiak. Aurkariak, Zaldua-Alkizalete II.ak, 12:29ko denbora markatu zuten probaren amaieran.

**Eguberri  
hauetan  
oparitu  
HITZako  
harpidetza!**



TOLOSALDEKO **hitza**  
ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria  
egin harpidetza:

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-1

**www.tolosaldeko-hitza.info**

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea ◦ 20400 Tolosa



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko.hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Lizartza



## URTE BERRIARI ONGIETORRIA GAILURRETIK

2011 urteari ongietorria emateko modu desberdinauk aukeratu ohi dituzte herritarrek. Ohikoena Urtezahar gauean parranda egitea izan ohi da. Hori egiten dutenek hurrengo eguneko goiza lo egiteko baliatzen dute. Horiek lotan dauden bitartean, baina, herritar ugari mendira igotzen dira, urte be-

rria ederki hasteko. Lizartzan, esaterako, hirugarrenez igo dira Otsabiora, Otsabio elkarteak antolatuta. Altozarrekin egin zuten topo gailurrean, eta giro «oso polita» sortu zen, gozoak eta cava edateko aukera izan zutelarik. Herrira jaitsi eta bazkalareko poteotxoak egin zuten ondoren. HITZA

## Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak urrezko ezteiak ezkontzak jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**EZAGUTU  
WEBGUNE BERRIAK**

**www.TOLOSALDEA.hitza.info**  
**www.IBARRALDEA.hitza.info**  
**www.ALEGIALDEA.hitza.info**  
**www.LEITZALDEA.hitza.info**  
**www.TOLOSA.hitza.info**  
**www.ANOETALDEA.hitza.info**  
**www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info**

## Agenda

### AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean.

### MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenea txarngaren kalejira 18:00etan.

### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *reborn* panpinekin osatua, Aranburu jauregian.  
■ **Tolosa.** Angel Cuedoren *Mundu bete kolore* erakusketa, Aranburu jauregian. Cuedok azken 10 urteetako bidaietan jasotako argazkien bilduma. Lanak salgai daude, eta jasotako dirua Sahararen alde izango da.  
■ **Tolosa.** Napoleoni buruzko erakusketa Aranburun ikusgai.  
■ **Tolosa.** *Artearen merkatua*, GKO Galerian.

### GABONETAKO EGITARAU

■ **Aduna.** Xurdirinen kontzertua, 18:00etan, Elordiko lokaletan.  
■ **Anoeta.** Irteera Errekaldeko-Txiki Park-era. 10:30ean aterako da autobusa Farmaziaren aurreko geltokitik, eta 13:30ean itzuliko da.  
■ **Irura.** Gazteen arteko frontenis txapelketa mixtoa, frontoian, 16:00etan.

### Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Urte berri on  
2011*

**Tolosa&Co**  
MERKATUAK